

BESTELAKO XEDAPENAK

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA

1297

EBAZPENA, 2023ko martxoaren 3koa, Merkataritzako zuzendariarena, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduan ezarritako laguntzen 2022ko ekitaldiko onuradunen zerrenda argitaratzeko dena. Agindu horren bidez, EAeko txikizkako merkataritzaren ekipamendu pertsonalaren eta etxearen azpisektoreari eusteko laguntza-programaren deialdia egiten da.

Dirulaguntza publikoak emateko orduan ezinbestean bete behar da publikotasun-printzipioa. Hori dela eta, esleipendunei ebazpena jakinarazi ondoren, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduaren 9. artikuluko 2. puntuan ezarritakoarekin bat etorritik, Merkataritzako zuzendariak honako hau

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren 2022ko ekainaren 21eko Aginduan ezarritako laguntzen onuradunen behin betiko zerrenda onartzea, 2022ko ekitaldiari dagokiona. Agindu horren bidez, EAeko txikizkako merkataritzaren ekipamendu pertsonalaren eta etxearen azpisektoreari eusteko laguntza-programarako deialdia egiten da, Merkataritzako zuzendariaren ebazpenaren arabera. Ebazpen hori esleipendunei jakinarazi zaie.

Bigarrena.– Onuradunen zerrenda argitara daitezela agintzea, laguntza-prozeduran interesa duten erakundeek kontsulta dezaten, <https://www.euskadi.eus/servicios/1112902> helbideko «Ebazpena eta errekursoak» atalean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 3a.

Merkataritzako zuzendaria,
MARÍA ELENA MORENO ZALDIBAR.